

Bilboko auzo-ertzetako ‘zauriak’ interpretatzen. Muga-espazioen transformazio urbanoa eta eraldaketa estetikoaren eraginak

Isusko VIVAS ZIARRUSTA

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakaslea. Eskultura Saila

Laburpena

Hirietako auzo-ertzak mota guztietako muga-espazioak izan daitezke. Berriak ala zaharagoak, historian eta denboran gertatu diren transformazio-indarren eraginpean sortuak eta eguneratuak lirateke. Denboraltasun horren harian eta lurzoruak okupatu ahala, hiriguneak handituz (puztuz) joan izan dira hiri-bazterrak erdigune bilakatu arte, alderantzizko norabidean ere gauzatuz; garai baten erdi-erdiko zentroa zena zinez barreiatu daiteke ezein hirigintza prozesuen ostean eta gizarteko korrante soziokultural, politiko zein ekonomikoen bultzadaz. Ikerlan honetan bai modu batean eta bestelakoan Bilbon azken hamarkadotan atzeman daitezkeen eredu batzuk aipatuko ditugu, ustez dentsitate edota arreta gutxiagokoak izan daitezkeen ingurune horiek ere batzuetan paraje osoro konplexuak direla ohartaraziz. Fisionomia urbanoaren aldaketak gizarte-fisionomian, antolaketan eta eginkizunetan esku-hartzen du maiz zauriak produzituz; kaleen, eraikinen, errepedeen nahiz lorategien estetika bitarteko.

Gako-hitzak: auzo-ertzak, Bilbo, hiria, muga-espazioak, zauriak.

Jasotze data: 2019ko otsailaren 25ean

Onartze data: 2019ko apirilaren 5ean

Abstract

Borders or neighbourhood boundaries of cities can constitute edge spaces of multiple configurations. Earlier or later created, they are updated or renewed with the influence of

the transforming forces that have acted in time and history. In line with this temporality and as the land is occupied, the cities have been widening (inflating) so that the margins have become neuralgic centres, this also happening in the opposite direction; the central nucleus of an epoch can be diluted in periphery after the urbanizing processes and with the push of the socio-cultural, political and economic currents. In this research work we will gather some of the examples that can be intuited in Bilbao in one way or another in recent decades, emphasizing that those environments of apparent lower density and interest, can become extremely complex places. The change of the urban physiognomy resonates in the social physiognomy, its ordering and functions, often producing wounds; between the aesthetics of streets, buildings, viaducts, parks and gardens.

Keywords: neighbourhood boundaries, Bilbao, city, edge space, wounds.

Oharra: artikuluan proposatzen diren irudiak norberak (autoreak) egindako argazkiak dira, landa-lana burutu izan den garaian lorturikoak (2012-2018). Beste norbaitek utzitakoa denean, argazki-oinean bertan autorea aipatzen da.

«*Hor gaude, onartu behar dugu,
hiria horrelakoa baita...*»
Itziar Lazkano

1. SARRERA: HIRIKO 'AUZO-ERTZAK' ETA HAUETAKO 'ZAURIEN' ROLAZ

«Inutile de s'escrimer pour décrire ou expliquer l'influence du temps, des sentiments sur la perception des lieux. Personne ne fera mieux que Proust à la toute dernière page de *Du côté de chez Swan*: "*Les lieux que nous avons connus n'appartiennent pas qu'au monde de l'espace où les situons pour plus de facilité. [...] Le souvenir d'une certaine image n'est que le regret d'un certain instant; et les maisons, les routes, les avenues, sont fugitives, hélas, comme les années*"».

Teresa Cremisi¹

Azken boladako hirigintza pasadizoetan han-hemenka adierazten zaigu, batzuetan barra-barra eta besteetan emeki baina etengabe, hiri-bilbeko 'zauriak' ekidin edota jadanik atzeman daitezkeenak 'konpondu' beharra. Hirian fisikoki (eraikuntza dela, traza nahiz ehundura dela, lurzoruen birgaitzea dela) esku-hartzeko teknikaren testu administratiboetan (era arruntenean beraien zioa, hein handian, aplikazioa dutenak: lurraldearen egitamu orokorrak, plan partzialak, sektorekoak, etab); zein idazlan teorikoagoetan (zenbaitetan 'akademiaren' baitatik sortutakoak: doktorego tesiak, master amaierako lanak, unibertsitate-mailako erakundeetatik zein eskola profesionaletatik bultzatuak, irakaskuntzarako gidaliburuak barne), 'kirurgia urbanoa' eta 'akupuntura urbanoa' gisako kontzeptuen balioak gorapatzen dira nonahi.

Zauriok sarritan erabilera zaharren aztarnak probokatzen dituen arrakalak izaten dira, kasu gehientxoetan espazio eraikiaren barruko limite bezala urte luzez kontsideratu direnak. Besteak beste, trenbideek eragindako zulo horizontal jarraituak edo 'trintxerak', kontainerren pausaguneak, fabrika amilduen lur ahituak... Izan ere, antzinako industria berantiarraren hamarkadetan (XX. mendeko azkenengoak) horrelako toki-lekuak usu identifikatu zitezkeen, eta berauek 'sendatzea' zen XXI. menderantz zihoan hirian ezin ukatu zitekeen promesa.

Alabaina, hiritargoari zuzenduriko hitzak, politikarientzat eta hiri-kudeatzaileen ztat kasik zinpeko mandatua zitezkeenak, bazekartzan maiz oso salatuak izan ez diren

1 Cremisi, Teresa (2015): *La Triomphante*. Gallimard, Paris, 190-191.

aspektu ilunagoak ere, abandonatuak utzitako parajeen ustiapen berriekin erlazioa zutenak. Bilbon bertan urrutiago joan gabe, erakunde operatiboek (*Bilbao Ría-2000*) eta espekulatiboagoek ere (*Bilbao Metropoli-30*) hartu zituzten beregain gizaldi baten osteko metropoliaren irudi-aldaketa apaingarriak. Lursail antzuak parke, lorategi eta pasealeku bihurtzeak etekin mugiezinak ere eskatzen zituen; aberastasun publiko eta pribatuarekin 'kirurgia' nahiz 'akupuntura' egin ahal izateko prestuak. Nola edo ahala, esparru itzelak bilakatu dira bizitoki eta hiriaren bizitza eraberrituko antzezpen-toki iragandako bi hamarraldien buruan, nahiz eta akabuko urteetako krisialdiarekin gauzak zerbait okertu diren. Operazio ikusgarri horien azpian, hala ere, beste batzuk aurkitu genitzake ez soilik periferia industriadunetan baita erdiguneetan ere, konkretuki Bilboko hiribilduaz ari garelarik. Zirrikitu horietan berrikuntza lau haizetara eskatzen zuten tartekak omen zeuden, ikuslearentzako askoz apalagoak baina espazio horietako biztanleentzat seguruenik orotan adierazgarriak eta biziki eraldagarriak.

Behin baino gehiagotan auzune historiko kontsolidatuetan, birmoldaketak zaharberritzean geldituzetik urrunago abiatu dira zonalde horien fisonomia bera aldatu arte. Berrikuntza horiek kasurik nabarientan sekulako ezta eragin dituzte (puzte demografikoak edo alderantzizko norabideko beherakadak, dimentsio urbanoen aztoratzea eta agian momentu horretaraino elkarren segidan nahiko bateratuak zeuden espazioen zatiketa, alboratzea, urruntzea ...), bisturi edo laban kirurgikoaren tresnaz burutuak. Horiek, hain zuzen, ustez itxi dituzten zaurien gainetik beste hainbat ireki dituzte, 'ebakuntza' hauek gertatu diren nukleoetako auzo-ertzak gori gorian atzemanez. Etxebizitzen eta bestelako eraikinen tipologia halako batez zeharo aldrebesten denean, kaleen zabalerak sano malgutzen direnean, auzo-giroko txoko txiki eta txukunak ibilgailuentzako errepide eta errotonda bilakatzen direnean, tokiaren fisonomia berriak ez dauka aurrekoarekin zerikusirik ez denboraren lerroan (iragana-oraina-etorkizuna lotzen duena) ezta espazioan ere (alboko beste tokietatik erabat desberdin ohartu daitekeena, katastrofe natural edo artifizial baten ondorengo berreraiketa balitz bezala).

Nola edo ahala, lurrikara metaforikoak ez dira hirigintza soilaren planoan gelditzen, sikiera biztanleriaren erraietara heltzen direnean. Fisonomiatik alderdi sinbolikoagoetara iragaziz, denbora-espazioari edota *crono-topos* deritzonari irmo kateatuta, bat batean eta gauetik goizera berritxura horren zurrumbilao murgildu diren lekuetan jendartearen bizimoduak jauzi izugarriak ez ezik jasanezinak sumatu ditzake, kurioa bada ere 'jasan-garritasunaren' garaian. Baliteke hiriko esparru edo auzo horietan gura baino sarriagotan ematen den nahita egindako gentrifikazio prozesu kontzienterik bere horretan ez egotea, baina eraginak eta emaitzak batzuetan ez lirateke oso bestelakoak izango. Bat bateko mugimenduak une baten euskarri sendoetan eragin dezake, bertan sustraituriko enborren zoruak labainkorki ukitutuz, eta logikoa denez horren guztiaren atzean dirauten oroitzapen-

zedarriak, memoriak eta tokiarekiko identifikaziorako ezaugarri pertsonal/kolektiboak hutsituz, galduz eta borratuz.

Aldirietako inguruneetan, hain zuzen, mendeetan eta hamarkadetan tailuz landu den hiri-espazioaren izaera erruz lausotzen da, transformazio prozesuek difuminatua. Hiri-bazterretako ingurumariak askoz dinamikoagoak izaten dira euren fisonomia aldaketan, ez baitute horren errotua hirietako beste espazio finkoek bereganatua duten gizarte-karga. Hauetan ordea, aldaketak beharbada mantsoago suertatu daitezkeen arren, kondizio txit aldakorren eraginpean (adibidez Bilboko industriaren desintegrazioa, krisialdi ekonomikoaren erasoak, e. a.) bizkortu egiten dira, egunero bizitako nahiz propio egindako toki-leku horiek ezezagun izan arte.

Sinergia hauen parean jarri dezakegu espazio publikoa deritzon kontzeptuaren garapena ere. Kategoria hori guretzako hiri-espazioari atxikitzen zaio. Labur esanda, adierarik arruntenean ‘espazio publikoa’ politikak eta pluraltasunak bat egiteko *sine qua non* baldintza litzateke. Rabotnikofen iritziz, besteen artean, guztiena den eta guztientzako balio duen espazialtasuna. Hiritar legez askatasunez (*koyné*) dimentsio publikoan guztiok barnebiltzeko eta inplikatzeko dugun aukera (bizitza publikoa), lekuaren zeharkotasunak exijitzen dituen eskumen eta betebeharrekin: herrialdea, estatua, lurraldea, eskualdea, udalerrria, sektorea, kolonia, auzoa². Pentsaera dagoeneko klasikoetan, autore esanguratsuen artean Jürgen Habermasek eta Hannah Arendtek tratatu zuten modu zabalean diogun aferaz³. Habermasek iritzi publikoa kontzeptua zerabilen mintzagai, gizabanako bakunetatik ernaltzen den espresioa lez. Espazio publikoa litzateke hortaz, iritzi publikoak gorpuz harturik guztiontzat eskuragarri egiten den toki-lekua; kasurako plaza publikoa. Bere aldetik, Arendtek ere nolabaiteko izaera urbanoa eskaintzen dio/zion espazio publikoari; guztiona den espazioa eta guztion begi-bistan jartzen dena, ezkutuan mantentzeke (horretarako ‘argiaren’ eta ‘iluntasunaren’ metaforak erabiliaz). Guretzako ere, oraingoan bederen, espazio publikoak euskarritze fisikoa edukiko luke ‘esfera publiko’ petotik (akaso digitala eta birtuala ere izan daitekeena) espazio-publiko-urbanoaren errealitate materialagora: zumardiak, enparantzak, pasealekuak, hiri-erdigune historikoak ...⁴

2 Rabotnikof, Nora (2011): “Los sentidos de lo público”, in M. Merino (comp.), *Ética pública*. Siglo XXI, Mexiko.

3 Ikus, gainerako eredu batzuen artean; Habermas, Jürgen (2006): *Historia y crítica de la opinión pública. La transformación estructural de la vida pública*. Gustavo Gili,artzelona. Arendt, Hannah (2008): *Hombres en tiempos de oscuridad*. Gedisa,artzelona.

4 Sousa González, Eduardo (2013): “El espacio público. Una visión interpretativa desde la posición de Jürgen Habermas y Hannah Arendt”, in D. Sánchez González eta C. Egea Jiménez (koord.), *La ciudad, un espacio para la vida. Miradas y enfoques desde la experiencia espacial*. Granadako Unibertsitatea, Granada, 51, 54, 56.

2. MAMIA: AIPATU TESTUINGURUKO LAUPABOST KASU ADIERAZGARRI

“Autoreek edo agenteek duten lurralde-ulermenaren edo paisaia-ikuspegiaren ideia irudikatu egiten dute egitasmo bat aurrera eramateko, estetika naiz komunikazio –eta zabalpen-helburuak direla eta. Paisaia bat eraikia dela esaten denean, inplizituki haren irudikapenaren bidez ere gertatzen dela esaten da, Rogerrek (2007) horri in-visu artealizazioa esaten dio. [...] Haren hitzetan, paisaiak bi modutan eraikitzen edo artealizatzen dira: in-visu eta in-situ. Lehenengo moduak, paisaiaren eraikuntza irudikatua edo imajinatua, proiektio bidez edota diskurtso bidez adierazten du. Bigarrenak berriz, bertatik bertarako, hots, modu material eta fisikokan moldatzen eta osatzen den paisaia adierazten du”. **Maidier Uriarte**⁵

Hemen aurkezten dugun gure ikergaian, Bilbo hirian identifikaturiko bost bat adibide gogora ekarriz beroriek jorratzen saiatuko gara, kasik guztiak hiriko trazadura ohikoan irila edo uharte-multzoak bailiran aurkituko ditugunak⁶. Ibilaldi xelebrea osatzeko, metropoliko eraldapen-zona bitxi batekin kontrajarri dugu. Lehendabizikoz behaketa-hautematearen metodologia darabilgu, dokumentazio eta informazio biltzearena (grafikoa/ idatzia), bigarrenaz tokian tokiko landa lanaren emaitzetatik hausnarketa-interpretazioak ondorioztatuz. Sarrerako aipuak dioskunez, irudi baten alo lanbrotzua abagune irristakorraren oroimena baino ez da. Ibilbideak, kaleak eta etxeak eurak ere, urteak bezalaxe, lehen ezarri dugun denboraltasunaren lerrokadura uhintsuan elikagai iheskorrak lirateke; beraz, ezagunak ditugun lekuak erraztasun nabarmenagoz antzemateko kokatzen dugun espazio-munduari baino ez dagozkionak.

2.1. Bilboko alde zaharren eguneratzea:

San Anton zubitik Miribilla mendi-magalera

Bilbo zaharra edota alde-zaharra hasiera-hasierako populazio primitiboaren bizilekua izan ohi zen itsasadarraren meandroetan, hiribildu-fundazioa gertatu aitzin, portu-izae-rari zegozkion jarduerak egonkortasuna zilegi egin zutenean; noski, adituek diotenez, erdi-aroko 1300. urtea baino apur bat lehenago. Ordutik hona mila istorio, baina datu

5 Uriarte Idiazabal, Maidier (2017): *Paisaia-ikuspegia eta haren lau dimentsioak. Metodo interpreta-tzaile konstruktibista baten proposamena, Bilboaldoko hiri-bazterreko paisaia menditsuen kasuan aplikatua*, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) eta Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Bilbo, 31, 35.

6 Ideia honako autoretik gureganatua dugu, hastapenean beste testuinguru baten erabilia; *“islas con tendencia al archipiélago”*; Ramírez Blanco, Julia (2014): *Utopías artísticas de revuelta. Claremont Road, Reclaim the Streets, la Ciudad de Sol*. Cuadernos de Arte Cátedra, Madril, 278.

konprobatuetara joz, Bilboko etxebizitza zaharrenek bertan zirauten duela gutxi, komentu eta monasterio lekua ere izan zen berori (gaurko aurrietan dakusagunak), Bilbori buru-korua jartzen zioten meatze-lurrez gain, haien oihartzuna gaurdaino pasa-leku ezkutuetatik presente dirauena. XX. mendearen lehen hamarraldietan eskuratuko zuen gerora harri pisutsu lez eroriko zitzaion fama txarra. Bizitza-modu kaskarrak bitarteko, Zazpi Kaleak Abandoko barrutiekoin konektatzen zituen espazioak degradazio fisikoa jasan zuen eta horrelaxe ikusi izan dugu iragan mende amaierako askotxok.

XX. mende horretako 90. hamarraldian abiatutako birgaitze egitasmoekin batera, orduantxe hasiko zen Miribillako meatzeetako transformazio urbanoa (1998an oraindik ere aurriak zeuden bertan), helmuga Bilboren zabalgunen berri bat atontzea zelarik Miribilla etxe-promozio anitzez josiz. Etxadiak espazio libreekin konbinatuko ziren, eta bien bitartean batez ere kirolerako zein hiri-mantenurako ekipamenduak eta zerbitzuak ezarriko zituzten (frontoia, estadioa, suhiltzaileen egoitza, eta abar). Bide batez, goian diogun Bilbo zaharreko auzotik gertu, bertako kaskartze fisikoa ekiditeko 'ebakuntza kirurgikoak' planteatu ziren espazio horren fisonomian zauriak eragin zituztenak. Deneran nabariena, etxebizitza blokeen bidez irekitako zonaldea, alde zaharrak aspalditik berekoa zuen traza apurtuz kale zabala planteatu zuena Miribillatik San Anton partera komunikazioa errazagoa egiteko. Gauza da, halako interbentzioak irudikatzen direnean, ez dela hiriko ehundura edo fisonomia bakarrik aldatzen; eraikinek ez dute lehendik hiriak zeukan bilbea errespetatzen (adibidez trazadura gotikoarekin mendeen joan etorrian gertatu den moduan; hau da, nahiz eta eraikinak guztiz berriak izan, horren azpian dautzan planoen lehengaia mantendu egiten da/zen). Aipatu paisaia hauetan, ordea, bai eskalak, bai erlazio topologikoek, bai etxe-eraikinen tamainak eta baita kalearekin sortzen diren harremanak ere desberdinak dira eta beraz, populazioak hartu behar dituen joerak eta funtzionamenduak ere bestelakoak izango dira. Horrez gain auzo-bizitzaren eraldaketa tradiziozko komertzioaren sare-erorketan, utzik gelditzen diren espaloi-mailako espazioetan zein bestelako elementuetan ere igartzen da: bertako hiritarrentzako zentzu handirik apenas duten diseinuzko hiri-altzariak, autoak aparkatzeko garaje erraldoiak, e. a.



1 irudia. Bilbo zaharreko bihotz-bihotzetik egindako mozketa. Aurrean Miribilla eta gibelean San Anton eliza.



2 irudia. Tipologia-aldaketa bat batekoak eta kale-pareta itsuetan agertzen diren iruditegiak: muralak, graffitiak.

2.2. Itsasadar-ertzeko Atxuri errebala eta Santutxu elkartzan dituen malda-espazioa

Aurreko paragrafoetan azpimarratu ditugun antzeko gakoekin eta adinarekin ere, Atxuri errebaletik Santutxu mendixkara zihoan aldapak urbanizatua zirauen *Ollerías Altas* eta *Ollerías Bajas* kaleekin, inflexio puntu baten biak ala biak elkartzan zirenak jaisteko (ala igotzeko) eskailera-tarteak hasten zirenean. Ibaiko ertzetatik gora 'tontorrera' helztearekin, trantsizio gunea ailegatzen zen Santutxuko lehen kale populatuak aurkitu arte. Aitzitik, trantsizio hori urteen poderioz hiriak berak asimilatzea lortu zuen salto handirik igarri baga.

Gutxi gora behera 2000. urtearekin eta zaharberritze inpultsoek eraginda, nolabaiteko muga-espazio horretako jarraitasuna izara edo maindire legez goitik behera urratu eta erabat zorabiatuko zen hiri-berrikuntzaren giro orokorrean planteaturiko etxe-botatze eta eraikitze eguneratuekin. Auzo zaharraren eta auzo berriaren arteko elkarrekintza uztartu ezinik, bloke lerrokatuek bata bestearen segidako panorama urbanoa konposatu zuten maldan behera, den-denak bikiak balira legez, auzo-espazioan estetika ezagutu ezinezko bat baldintzatuz.



3 irudia. Horren gertu eta aldi berean hain urruti, alde batean betiko dendak, tabernak eta espaloia; bestean auzo-ilarak etxe-atarien ondoan, berauek ia inortxok ere erabiltzen ez dituen baranda-balkoiekin hornituak.



4 irudia. Hiri-paisaiaren irudi sasi fantastikoa Ollerias kaleetan eta eskultura edo artelanak diruditen jokoak.

Aurrealdean (hau da, lehenagoko kalearekin konektatzen duen aurpegian) limiteak zehaztasunez identifikatzen dira kalearen izaera batukorra, erlaziozkoa eta auzotarra zapuztuz. Nola edo ahala, kalearen parte batek eguneroko bizitza mantentzen duela ematen du eta besteak, aldiz, geometriaz buruturiko sarrera espaziotsuekin eta portaletara irizteko ibili behar diren hamarnaka metroekin gainerako inguru guztitik aldendua dagoela ematen du, bertan biztanlerik (edo bizitzarik) ez balego edo hauetako bakar batzuk, lo egitera etorriko balira bezala. Atzeko espazioetan kota-aldaketak samurtzeko zementu-ormigoizko zoladura eta eskaloi seriatuez baliatuz, batzuetan ustez umeentzako jokoak lirartekeen tramankuluak kokatzen dira. Haur-jolasak diren ala hiri-eskultura izaera duten definitzea zail samarra dugu.

2.3. Zabalburu-Irala bitarteko dorre zuri pertxentak ziklo baten osteko laiotzean

Bizitza-zikloaren ilunabarrean, joandako iragan gazi-gozaok galzorian daudenean, hamarraldi jakin batzuetako argi-ilunekin pizturiko ilusioen frakasoak mingotsa du zaporea eta erdi-ustela izan daiteke hari darion usaia ere. Garapen geldiezinaren zerien *desarrollismoa* deituaren urteetan, Bilboren antzeko hirietan makina bat egitasmo izan ziren kontrolik gabeko eraikuntzaren motorra martxan jarri zutenean. Badakigu aldiriek demografia zein hiritar hazkunde horretako kaskarrena nolatan etsipenez leporatu behar izan zuten, kasurik odoltsuenetan behinik behin. Hirian bertan ere, eta batik bat zabalguneko historikoak laga zizkigun ertz urbano esanguratsuetako baten altxatu ziren Zabalburuko dorreak. Haize-orrazien ametsaz, bere horretan ia autonomia izan behar zuen auzoa landatu zuten Zabalburuko enparantzatik gora Irala eta albotik Zabala auzoekin lotzen zuen malda leunean. Eragin iturriek itsututa (Ameriketako Estatu Batuetako eraikuntza-planak, Arkitektura Internazionalaren patua, nazioarteko hirigintza plangintza arrazionalak eta gainontzeko loraldi erdi utopikoak diruaren garaian eta finantza-aurrekontu oparoen garaian) etxez edo bulegoetz aparte komertzio eta aisialdi zentro futurista muntatu nahi izan zuten dorreen azpiko espazioetan; zinemak, jaietarako areto bereziak eta azpiegitura franko aurreikusten zirela.

Urteen iraganaren poderioz, inertzia gogotsu haiek itzali eta guztiz ahantziak gelditu dira dorreak. Igarria da auzoen arteko ertz-muga horretan probokaturiko zauria, eta behin baino sarriagotan komentatuak haren efektuak. Hasieran heldu ziren ertain/goi klaseetako biztanleak desagertu eta bestelako egitarau-programa itsusiagoetarako destinatu dira hainbat alditan, ingurugiroa degradazio kutsu iraunkorraz koloretuz. Behin-behineko atxikiak sarri askotan etorkinak ere izan dira, alde-zaharra eta San Franziskotik 'botata' edo aldendu arazita Zabala bezalako bizitoki berrietara bidean pausa-leku inprobisatuak izan dituztenak. Ondorioz, Zabalburu eta Juan de Garay kalearen artean zama ezatseginaren ospea daraman murrua eta pareta bailiran (bertaratzea eguneko ordu txikietan arriskutsua izan daitekeen famaz) igartzen dira noizbait zuriak ziren dorreak, gure egunotan belztuak hiri-ertzaren muga laiotzean.



S irudia. Zabalburuko dorreen atzealdeko kale-ikuskizuna eta aurreko fatxadako detaile baten irudi fantastikoa.

2.4. Ametzolako bigarren berreskurapena: zabalgunearen limiteetatik doan tren-sarea

Arestian aipaturiko Zaballburu eta Zabala auzoek Bilboko zabalgunearen ertzetatik Rekaldeberrirekin topo egiten zuten limiteetan, Ametzolako antzinako tren-geltokiaren arrastoek Bilbo hiriko bazter horiek osoro mugatzen zituzten. Trenbide hori merkantzien garraiorako erabiltzen zen, oro har, Abandoibarrako beste hiri-pieza industrialarekin elkartuz eta harago, Abrako portuko kai eta moiletaraino ailegatuz. Tartean zeuden Bilboko alderdi metropolitarran ospetsu ziren sonazko usinak: *Euskalduna*, *Altos Hornos*, *La Naval...*, itsasadarrarekin bat, metropoliaren altzairuzko bizkarrezurra konposatzen zutenak, horrek posible egiten zuen lurralde-estruktura xeblearekin. Ametzola, beraz, hezur horren saihetsetako bat zela ziurtatu daiteke. Halaber, XX. mende amaierako 80. hamarkadako industria-krisiaren ondorengo urteetan, 90. hamarraldiarekin Bilboko birgaitze prozesuek abiadura hartu zutenean, Ametzola izan zen interbentzio horietan lehen irabazia lortu zuena.

Asmoa industria-gune izatetik hiritarrantzat errekuperaturiko parke eta atsedenekua izatea zen, eta horixe bera izan zen López Chollet arkitekto eta hiri diseinatzaileak proposatuko zuena: etxe-dorre ilara minimoa zabalgunearen ertzetan, birika-gisako parke urbano berdea kota desberdinetan eta zuhaitz landaketarekin; horrekin batera dekorazio-iturri sinbolikoa, altzariak eta eskultura urbanoak. Halabeharrezkoak ziren azpiegiturek ere presentzia izango zuten; merkantzia tren pertsonentzako zerbitzu publikoen hobekuntza programetan sartzea, zaborren bilketa selektiboa egitea eta abar. Hala ere, trenbidearen lurperatzeak arazo gehiago suposatu zituen eta bigarren fase baterako utziko zuten. Beste hiruzpalau urteren buruan, trenbide-sarearen zauria sendatu eta lorategiz jantzitako lautada urbano batek aldameneko Rekaldeberri auzoari eskua luzatuko zion, hainbeste denboran labanez 'ebakita' egonda gero.

Hala izanda ere, mutur batetik bestera abiatzeko salbatu behar diren horma-gisako kota urbanoek, igogailuek, eraikitze-material ezberdinek edota hiri-egitearen filosofia zein praktika desberdinek pertzepzio anizkoitzak eragiten dituzte ikuslearengan, zauritapatze horrek azken finean beste batzuk ere sortzen baititu, espazioa zeharkatzerakoan ongi konturatzen garenaz.



6. irudia. Ametzolako bigarren faseko berregituratze-obrak zoruko 'O' kotatik gorantz eta beherantz aldi berean.

2.5. *Megapark* etorbidea Barakaldoko mugetan: merkatalgoak berrerabilitako bailara

Bilboko ibai-beherako bazter-lautada bustiak oso egokiak izan ziren hiriko azken mende eta erdian jaio diren metalurgia eta siderurgiaren aktibitateei itsasora irten aurretik arrera egiteko. Burdinaren ustiapenak bertan izango baitzuen bere kabi onenetarikoa. Jarduera nagusi horren gidaritzapean beste hamaikak ere parte hartuko zuen, ikonografikoki estetika zinez berezia zuten itsasadar-bailarako paisaiak egituratu arte, eta haiek biziraun zuten bitartean.

Beste behin ere sistema produktiboen goraldia agortuta eratorritako beheraldietan barne-barnetik itxuraldatu ziren ingurumen metropolitarreko paisaiok, bertako bizitzarako eta ikonografia-ezaugarriak estuki transformatzen ziren abiada berean. Produktzio-gune izatetik merkataritza eremu izatera, gizartea bera ere akuiluz astindua izan da ohiko imajinarioen errepresentazioetatik horri gaineratu zaizkion erosketak eta aisialdiaren denbora-pasetara. Modernitate berantiarra edo postmodernitatearen izpi-zuzentzaile, *Megapark* etorbidea erosketak modu eroso baina masiboan egiteko zentroa ez ezik, aspertuta bagabiltza osteratxo bat osatzera joateko ere bada; ustezko toki 'seguru' baten arratsalde-pasa ibiltzeko ere.

Hektarea antzu horietan kokatu ziren nazioarteko zenbait zerbitzu eta produktu enpresa identifikagarri: *Ikea, Decathlon, Leroy Merlin, Media Markt, Burger King* eta beste hainbeste, norberak egiteko etxe-altzarrietatik jangarrietara, teknologia eta zinemara ere badoazenak. Orubeen beheko aldean autoak aparkatzeko dozenaka garaje eta funtzio bereziturako eraikin neutro horien kanpoaldean paseatzeko edo egoteko balio duten espazio libreak batzuetan jesarlekuz, landaretzaz eta hiri-altzariez gaituak. Halaber, maiz zabalak diren kanpo-espazio horiek zenbaitetan estutzen doaz azkenean balkoi-erako pasabide izan arte, eta hortik zuzenean beste mega-egitura baten barnera garamatzen beiradun zubia. Horrela, ibilbideak espazialki markatuak daude eta batzuetan, zailtasunez konturatuta, kontsumorako egitura anizkoitz baten barnean murgilduta gelditu gaitezke kanpotik barnerako indar-erakarpenean.

Aurreko atalean genionez, hemen ere Barakaldoko bazterreko zona urbanoagoarekin tupust egiten duten bizpahiru etxebizitza dorre genituzke, Erakusketa Azokatik ez oso urrunduta. Bestalde, *Megapark* etorbideko sarrera-irteerako errepideak kotxez ibiltzekoak badira ere, tradiziozko hiri-zabalgune klasikoetan dirauten elementuak aurkitu ditzakegu; adibidez perspektiba kardinalen erdiguneak sinbolikoki markatzen dituzten iturri monumentalak, baina oraingoan leihorik gabeko *megadenden* bitartean eta auto-karrilen galtzadako gurutzapenetan.



7. irudia. Megapark etorbideko espazioak apurka estutzen doaz salerosketa-programak bultzaturiko direkzioan.



8. irudia. Pasadizo batzuk (zubitxoak) denda-barrualdeetara eramaten dute, Zubiarte Zentroan ere (esku-makoa).

3. ONDORIO HURBILPENA: ERALDATZE EKIMEN OROTAN ASALDAKORRAK

*"Parkeak, kaleak, eraikinak, plazak... egunerokotasunean erabiltzen ditugun espazioak ere, gizartearen nagusi diren balioen isla dira. Leonardo Da Vinciren Vitrubio-tik Le Corbusierren Modulor-era, arkitekturaren ardatz den 'giza' eskala definitzen da"*⁷.

Lainoak hodei-ertzean, Bilboko ortzi-mugak badauzka bere perfil hauskorra eta siluetak. Horiek ez dira eraikin enblematikoenak soilik, baizik eta hiriak denboratasunean izan duen garapenak marrazturikoak. Hauetako batzuen artean, eta izan daiteke profil horien kontra-argiak eratzen duen bihotz taupadaren antzeko grafikoaz, gora-behera asal-dagarriak ager daitezkeenez, horiexek adieraziko digute nondik dabiltzan arestian aitatu ditugun 'artxipielagoak' (irla-aldrak) egituratzen dituzten espazio berrituak. Orrialde hauetara ekarri ditugunak, bien bitartean, gradu eta koefiziente potoloago zein murritzagoan, lur-tartean, espazio-tartean, magalean gora daudenak dira denak ere, hiritik kanpoko aldirietakoa salbu.

Guztiak XX. mende amaierakoak eta XXI. menden hasierakoak badira ere, duela ehun bat urte XX. mendeko lehen hamarkadetan izan ziren antzeko adibide askotari-koak, orduko hiri-bazterren eta erditik apurren bat aldentutako auzoen kasuan bederen. Horietatik ikertuenetako bat Bilbon, Solokoetxeko etxebizitza berrien lehiaketa izan zitekeen, 1931n Udaleko *Junta de Viviendas Municipales* erakundeak bultzatua⁸. Bertako gainontzeko etxadien, eskailera zein lotura-bideen eta eskola publikoaren eraikinaren artean hala nolako 'irla' edo 'uhartea' osatzen dute etxadiok, abangoardiako arkitektura arrazionalistaren arauen arabera eraikiak, garaiko modernotasunean aurrerapen galanta izan zirela onartzea ere bidezkoa dugularik.

Garai eta estilo berdintsuko beste adibide bat Santutxuko Briñas eskolak lirateke, 1933ko Pedro Ispizua arkitektoaren egitasmoa. Hau ere 1990eko urteen amaieran bir-moldatua, bere jaiotza-garaiko argazki zahar batzuk Basarrateko zuhaitzia eta ia urbanizaziorik gabeko hiri-bazterrak erakusten dizkigute, lorategi-hiriaren ezaugarriak zeuzkan

7 Ikus: *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 30, 2017, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 1 ('Editoriala').

8 Lehen eta bigarren sariak Emiliano Amann eta Luis Vallejo/Juan de Madariagaren ekipok irabazi zituzten. Egikera arkitektonikoari zegokionez, hauek ez zeuden Europako erdialde-tik zebiltzan arrazionalismo ortodoxoaren korronte ideologikoetatik oso urrutik; abangoardia eraikitzaileak etxebizitza-parke berriak, hobeak eta merkeagoak egitea baitzuen helburu XX. mendeko lehen eta bigarren hamarraldietan biztanle poltsa dezenterentzat, naziiek boterera heldu aitzin. Solokoetxeko hauek eraberrituak izan dira duela 5-10 urte inguru.



9. irudia. Bilboko Solokoetxe auzoko etxe-promozio arrazionalistak
(ezkerreko argazkia: M^a Ángeles Ciarrusta).

familia bakarreko neo-euskaldun etxetxo batzuekin. Hezkuntza unibertsalaren paradigma berrietarako eskola handiak bere geometria zehatz eta horma zuriekin begiradak kontzentratuko zituen, honek ere beheragoko parteko lurraren kotara egokitu beharko zituela heziketa-edukietarako espazioak⁹.

9 Beste batzuen artean, erreferentzia hau ikus daiteke; Vivas Ziarrusta, Isusko (2004): “Racionalismo local y reminiscencias posteriores. Arquitectura funcional entre el simbolismo y la monumentalidad”, *Ondare, 1875-1939 bitarteko Euskal Artearen Berrikusketa/Revisión del Arte Vasco entre 1875-1939*, 23, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 355-370. Vivas Ziarrusta, Isusko (2006): “Prolongación racionalista en la arquitectura vasca de posguerra. Desde el orden simbólico-monumental hacia la búsqueda de la funcionalidad”, *Ondare, 1939-1975 bitarteko Euskal Artearen Berrikusketa/Revisión del Arte Vasco entre 1939-1975*, 25, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 263-280.



10. irudia. Briñas eskolak Santutxun. Abangoardiako eraikin zaharberrituaren atzeko eta alboko ikuspuntuak.

Eraikin hauek sortarazten zituzten inpaktu estetikoak ere ziurrenik entzutetsuak izango ziren orduko hiritarren aho-belarrietan, zeren eta hormigoizko paisaia indartsu hauek estilo bereizgarri 'aztoragarria' zuten: "bloke izugarri altuak, material xumeen erabilerera, soiltasuna [...] hiria historiaren eszenografia konstantea da, pasatako urteen lekukoa ere baden bezala"¹⁰.

Duela bizpahiru paragrafo irudikatu ditugun siluetek espazio berezituaren esanahiak dakarzkigute oroipenetera. Bidenabar, zerumugan mozten diren teilatu taldeak itzal txinoak bailiran sumatu ditzakegu, beste tximiniatzar batek koadrotik at gelditzen den ke beltz dentsoa izurtzen duen bitartean. Forma geometrikoen artean, ur-biltegi edo depositu bat dakusagu¹¹. Aipua poetikoki interpretatzen duen itzalezko eszena Bilboren pareko industria-hirietan ohikoa zen aspaldi baino geroago, hau da, guregandik gertuago, eta zonalde horiek (nahiz periferiakoak nahiz erdigunekoak izan) hiriko ertzak eta 'zauriak' bistaratzen zituzten garbiro.

Masan produzitzeko kapitalismoaren garaian, hain zuzen hiri-fabrika binomioa adimenean etengabe geneukan latitudeetan, ondotxo ezagutzen eta identifikatzen geni-

10 Larramendi Elexgarai, Itsaso (2018): "Guda hotzak oraindik eragina du gugan, badago iruditeria kolektibo bat mugak tinko mantentzen dituena. Aitane Goñi Landarekin solasean", *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 35, Udako Euskal Unibersitatea (UEU), Bilbo, 3-5.

11 Pérez Goiri, Iker (2014): "Impresiones de una ciudad", *Ausart. Journal for Research in Art*, 2 (1), Euskal Herriko Unibertsitatea (UV/EHU), Bilbo, 156.

tuen hiri bazterrak eta haien funtzio zein betebeharrak; kontzientzia kritikoa egon zitekeen baina baliozkotasunaren kontzientziaren zurrunbiloan. Produkzioko kapitalismotik kontsumokora eta fikziozkora ere jauzia egin dugunean, ke-hodi zutak zeuden tokietan salmenta-enpresa internazionalen logotipoek hausten digute ilunabarreko zerua eta Manolo Delgado antropologoaren esanetan ere, euren lurraldetik moztuak diruditen irla autentikoen gisan ageri zaizkigu barrutiok, non bisitari kontsumistak edota kontsumitzera doan bisitariak beste kodigo batzuekin interpretatzen den ‘hiri’ bat topatuko duen. Hiriko mikro-kosmosaren eszenak errepikatzen dira bertan; zeinahi kale, plaza eta bidegurutzek koordinatuak. Zerbitzuak, dendak, *fast-food* eta bestelako janaria ere dastatzako toki aproposak eta ikusi dugun bezala, zinemak ere edukiko ditugu, kanpoko terrazekin, hiri-altzari eta haurren jolasekin batera¹².

Idazki honetara ekarri dugun adibide konkretu batek jolas-makina horietako batzuk zituen nahiko egoera ez-estrategikoan eta ez-atsegingarrian kokatuak gainera, nolabaiteko eskultura garaikideak ziruditenak, kakotx artean. Edozelan ere, gure egunotan berreskuratu edo birgaitutako hiri-paisaia mordoak aurkezten ditu honelako elementuak, agian jomuga estetikoago baten lekukotasunaz, bere benetako inportantziaz baino, zeren eta printzipioz:

“Jolas-patioa ez da espazio neutro bat eta berorren gainean gertatzen denaz gogoeta egitea beharrezkoa da. [...] Giza harremanak, genero-rolak eta identitatearen gaineko aferak hezkuntza-guneetan negoziatu eta ezartzen dira [...]. Jolas-parkeak adibide ezin hobeak dira txikien eta helduen hezkuntza-guneen gaineko politika deskubritzeko: non, nola eta zertara jolas daitekeen aurrez erabakita dago –botere-espazioak bilakatuz–, eta ongi hezitutako espazio kontrolatu horren barnean haurra ‘robot’ bat besterik ez da. Seguritatearen izenean gainera. Eredu hori, baina modu leunago batean nahi bada, gure lurralde, hiri eta herrietako espazio publikoetan errepikatzen da”¹³.

Segurtasun-espazioak eta kontrolpekoak izaten dira normalean garaile suertatzen direnak. Hauetan jarduera ludikoak (ez umeentzat bakarrik, batzuetan paseatzea, bazkaldu edo afaltzea, tabernako terraza baten egotea zein erosketak ere gizarte entretenigarriak izan daitezke) lege nahiz araupekoak izaten dira eta jostatzea arriskutsua izan daiteke erabaki batzuk hartuz gero. Aspaldi askoz irekiagoa eta barreiatuagoa zen haur-jokoaren mugaketa bera, ezein arrazoi medio, espazio publiko orokorragoaren estatusunaren sei-

12 Delgado, Manuel (2007): *La ciudad mentirosa. Fraude y miseria del ‘modelo Barcelona’*. Catarata, Madril.

13 *Aldiri. Arkitektura eta abar...*, 27, 2016, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 1 (‘Editorial’).

nale dela pentsatu araziko digu Tomás Carrascalek. Abileziaz eta ausardiaz asmaturiko abentura-joko zaharkituen desagertzea *txiki-park* eta antzeko espazio hesituen sorrera eta areagotzearekin zuzenki proportzionala dela abisatuko du, soinketako aparailuez beteta diharduten harresietan, sofistikazio osoz ezarriak. Halako efektuak bai txikientzat eta baita nagusiagoentzat ere bateragarriak dira izaera uniformeak baldintzatzen, baita auzo degradatuen eguneratzean ere. Gaurko gizarteratze ahaleginak auzoetako bizitza formaren galaraz espektakulorako eta dibertsiorako beren beregi antolatuak dauden lokaletara murriztu ditu erlazioak, hortik kanpo mundu birtualak eta askoz jota agerkari masibo puntualak (publiko/pribatuak) gorapatuz¹⁴. Hau da, aldirietan ahalbidetzen diren kontzertu eta festak (hiritik at) nahiz ustiaketa intentsiboko eta kaltegarriko zonaldeak, landa-lurrak, e. a. 'Event' direlako esperimintuen pentzuan, tokian tokiko bereizketa tendentziak ukatuz edo ezabatuz, ahal dela gentrifikazio, hiri-gatazka eta klase-gatazka bortitzik gabe, kultura/kirola bezalako aitzakia 'zuriak' bide.

Le Corbusier abangoardiako arkitektoak, agian mesianismo kutsu inozo batekin, bere 1923ko idazkietan (hain zuzen, Ricardo Bastida Bilborako hiri-ehunduraren plan-teamendu moderno eta arrazionalak proposatzen zebilen urte berean) zera esleitzen zuen; arkitektura ala erreboluzioa. Gure garaiko errealismo politiko gordinak antzeko formula erabakigarriak postulatu beharko lituzke baina itxaropen gutxiagorekin: alajaina, ez matxinadarik, ez iraultzarik ezta arkitekturarik ere. Ez behintzat estetikoki baliozkoena izateaz gain beharrezkoa eta bere izaeran autentikoa ere badena. Ez baitago arkitektoen eskuetan gizarteko egitura sozialen transformazioa eragitea ezta oztopatzea ere. Euren jarrera kritikoaz (proiektuzkoan, irakaskuntzan, eztabaidetan...), ditugun egitura espazialak gaintzen eta soluzio duinagoak bilatzen ozta-ozta lagundu badezakete ere, profesioaren ikusmiratik.

Lehen esan dugunez, Manuel Delgado antropologoari jarraiki, idealismo urbanistikoak hiriaren forma urbanoak aldaera konduktista delako batekin jendartearen portarari orientabideak eskaintzen dizkiola defendatzen dutenak salatzen ditu. Hauen iritiz, bolumen arkitektonikoen edo espazio urbanoko beste elementu batzuen disposizioak erreflexu kondizionatuaren antzeko zerbait eragiten du jendarengan eta oro har, hiriko kale ibiltariarengan. Halaber, badakigu beste erako morfologia bat dela –soziala behinik behin– azken hitza izango duena toki diseinatu, urbanizatu eta eraiki baten izaera eta erabilera erreala determinatzeko orduan¹⁵. Bikoiztasun kontraesankor hau beti izan da mintzagai profesional eta aditu batzuen eta beste batzuen artean, ezen ikus-angeluak, teoriak eta axiomak parekideak edo aldenduagoak izan daitezke. Dena dela, bata bestearrengan

14 Carrascal Gallardo, Tomás (2012): *El patio 'off' mi casa. Relación del Diseño y la Estética con lo Ibérico/Popular Contemporáneo*, Editorial Círculo Rojo, Almería, 80.

15 Delgado, M. (2007): *La ciudad mentirosa...*, op. cit., 129.

eragiten duela duda izpirik ez, hemen ere lehenengo oiloa ala arrautza den oso zuhurki jakiteke egoteak ez ditu elkarrekintzen efektuak samurtzen.

Bukatze aldera eta Andeka Larrea/Garikoitz Gamarra filosofoek ziotenez, Santurtzitik Bilbora gaur egun ez gara jada ibai-bazterretik hurreratzen Saint Ander (Deunaren) autobidetik baino. Bertatik kuku egin diezaiokegu komertzio zentroz goraino dakusagun metropoli-gailurrari: *Max Center* eta *Megapark*. Metropoliak paradoxa-izaera du, ez baita ‘mantentzen’ den lekua baizik eta abiada bizian iragaten dena. Desioaren espazioa, putzu sakon ilunaren tankerakoa¹⁶. Hauen ustez komertzio zentroen konglomeratua da *Megapark*, Espainiar estatuan dauden handienetakoa, sorturiko eremu honek eraikitze-proporzio izugarriak hartzen dituelarik. Limitean esan ditugun dorre edo haize-orraziak dituela, gizakiaren eskalan baino gehiago autoaren eskalarako egokituriko espazioak, zeren eta Zygmunt Baumanek identifikatzen duen ‘modernitate likidoaren’ aroan eroatera joate-akzio erritoak norbere ibilgailua inplikatzeko du.

Autore hauek ere kontsumoko espazio ‘fagikoak’ hiri postmodernotako tenpluak bailiran interpretatzen dituzte. Estrategia ‘fagiko’ horrek ez baitu desberdintasunaren bazterketa petoa bilatzen, baizik eta sistemen barneko asimilazioa, tontorrik garaiena konbertsioa edota garun-garbiketa izanik. Marc Augé antropologo frantziarrak ere halaxe izendatzen zituen ‘ez-leku’ horietan (gain-modernitateko izate anonimoaren testigu) ez dago historiarentzat tokirik, ez memoria ezta utopiarentzat ere; gure lursailetatik antimateria bezala harat-honat hedatuz¹⁷. Kasu honetan gainera, Erakusketa Azokatik hur, biak ala biak elkarrekin elikatuko direlakoan, A-8 autopistaren bazterrean olio orban modura beraien artean lehian zeuden denda erraldoiek euren arteko kompetentzian oinarriturik, behin batean elkartu eta *Megapark* estruktura gorpuztu zuten, etengabeko beherapenak eskainiz eta arratsaldea edo egun-pasa egiteko beharrezko azpiegiturak erakarriz (esan dugun bezala, gastronomikoak eta aisialdikoak). Garraio publikoetatik urruti, oinezkoentzako nahita aldendua dago eta aireportuek nahiz tren geltokiek dituzten bitarteko-espazioen ‘ez-lekuen’ zeinu konnotagarriak adierazten ditu¹⁸. Azpiegituren tokiak, ‘transizio antropologikokoak’, anonimoak, ‘leku’ izateko meritu gabe:

“Azpiegitura-espazioek egun hartu duten indarrean dago gakoia ezlekuen kontzeptua oroitaraziz. “Eraikinak jada ez dira arkitekto batek arta handiz moldatutako itxitura singularrak, baizik eta kopia eta sakabana dai-

16 Larrea, Andeka eta Gamarra, Garikoitz (2007): *Bilbao y su doble. ¿Regeneración urbana o destrucción de la vida pública?*. Gatazka Gunea (‘Gatazkaren Harian’ Bilduma, 1 liburukia), Bilbo, 48-49.

17 Larrea, A. eta Gamarra, G. (2007): *Bilbao y su doble...*, op. cit., 141-142. Ikus baita ere: Augé, Marc (1994): *Non-lieux, introduction à une Anthropologie de la Surmodernité*. Seuil, Paris.

18 Larrea, A. eta Gamarra, G. (2007): *Bilbao y su doble...*, op. cit., 148-150.

tezkeen produktu” espazialak. “Gaur egun, mundu osoan hiriak formula bati jarriki eraikitzen ari dira –azpiegitura-teknologiarena–. [...] Azpiegiturek hartu duten botereak, azpi-egitura urbano izateari utzi eta egitura bera bilakatzera eraman ditu; alegia, “hirigintza globalaren parametroa bera” bilakatu dela azpiegitura (Easterling, 2016). [...] Arkitekturaren azpiegiturak arkitektura bera gainditu ote du?”¹⁹

Autore honen esanetan bai arkitektura eta baita hirigintza ere “kontrol-mekanismo eta merkatuen aurrean manukortu dira”²⁰, orotan espekulatibo bilakateraino. Eraikuntza-estilo berrien interes estetikorik eza korronte hauen muinoan koka daiteke, hiri-egikeratik haratagoko baldintzei so, batik bat espazio publikoaren bazterketa eta galeraren esparruan. Paraje barreiatuetatik hiri ‘pisutsu’ eta dentsora itzuliz ere, espazio-tentsioak igarri daitezke:

“70eko hamarkadan Chicagoko Ekonomia Eskolatik zabaldu ziren pentsamendu berriek esfera publiko eta kolektibo eskala indibidualera murrizteko esfortzuak zabaldu zituzten errua gobernu-egitura publikoei egozteraino. Gutxi itxaron behar izan zuten ideiak esparru publikora zabaltzeko. [...] Orube barruan eraikin baten kokapena ere merkatuaren baldintzen barruan dago. Esaterako, parke baten ertzean bloke baten garaiera maximora eramango da, ikuspegi erakargarriena duen aldeari ahalik eta etekin handiena ateratzeko, horrek, inguruko testuinguruaren haustea ekar balezake ere”²¹.

Hari honetan eta distantziak salbu egite zertxobait ezberdinekoak izateagatik, beraien aurpegi belztuek lehenago orrialde hauetara ekarri ditugun Zabalburuko hastapen-zuriko dorreek ere gizarte eta hiri-degradazio gune bezala ‘ez-leku’ edo ‘ez-tokiak’ kontsideratu ditzakegunak, horiei buruz itauntzen Andeka Larrea eta Garikoitz Gamarrekin batera guk geuk ere galdera aieratzen dugu zenbateraino ondorioak ez diren errepikatuko. Hau da, hamarkada batzuen buruan gure hirietan orokorrean (Bilbon bereziki) ditugun keinuzko eraikin enblematiko asko ez diren ahantziak geldituko eta zein

19 Azkona Uribe, Mikel (2018): “Arkitekturaren balioa. Balioak preziorik ez duenean”, *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 35, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 7.

20 Azkona Uribe, M. (2018): “Arkitekturaren balioa. Balioak preziorik ez duenean”, *Aldiri...*, op. cit., 8.

21 Azkona Uribe, M. (2018): “Arkitekturaren balioa. Balioak preziorik ez duenean”, *Aldiri...*, op. cit., 8-9. Chicago School of Economics erakunde ezagunak orokortu zituen ekonomia liberalaren ikuspegi neoklasikoak. Keynesianismoa zelakoa zokoratu eta besteen artean, Friedmanen teoriak hobetsiz.

izan daitekeen beraien etorkizuna; modaren korapilo eta tirabiretara jokatzea arriskutsua baita, publikoa den gainazal zein barru-barrukoarekin ere²².

Arrapostuak bilatzea askoz zailagoa da galdeketak txertatzea baino. Ezin diogu gure buruari ezta gure errealtateko panoramari era motzean ihardetsi, eta beraz erdibideko zirrikitu-espazioak (metaforiko baizen ikuskor eta ukigarriak) hiri-bazterretan bezainbat lepo-birikietako auzo-ertzetan arnasten jarraituko dute, ‘zauri-estetiko’ eta sozialak ere iraupenez asimilatuak izango direla imajinatuz. Bitartean, gurera ekarri gura genukeen ideia batez amaituko dugu. Bada, kalea (hiri-espazio publiko eta urbanoari Manuel Delgado deitzen dionez), puztu bezainbeste hutsitu ere egin daiteke, bat-batean edota geldoago. Hiriak ‘hutsune-betetze’ espazioak baitira, “publikoa dena hutsa eta betea pribatua. Pairatzen den ekonomia forma berri honek, aldiz, betea dagoena hustu eta hutsa betetzen du”²³. Puzte-huste horren hauspo-mugimenduak eredu sozial eta unean-uneko zein astiroago gertatzen diren lekutze eta ez-lekutzeekin harremana du baina baita hiri-eraikitze fisiko/fisonomikoagoarekin ere. Gure egunerokotasunean ‘zauritzen’ gaituen desjabetze prozesu historikoa adierazgarria da eta horretaz konturatzea are eta garrantzitsuagoa. “Gaur egun ekonomiaren ikuspegi neoliberalak ekoizpen-prozesuen eta jabetza-eredu pribatuaren bitartez lurraldearen diseinua determinatzen du. Espazioaren diseinua herritarren erabakitze ahalmenetik urruntzen du, lurraldearen antolaketa eta ekonomia interes berdinen esku utziz”²⁴; lur-jabegoa eta etekin pribatuak lortzeko atontzen diren baliabide publikoak ere, sano homogeneo eginiko auzo-espazioetan.

ERABILITAKO ITURRI

ETA ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Arendt, Hannah (2008): *Hombres en tiempos de obscuridad*. Gedisa, Bartzelona.

Augé, Marc (1994): *Non-lieux, introduction à une Anthropologie de la Surmodernité*. Seuil, Paris.

Azkona Uribe, Mikel (2018): “Arkitekturaren balioa. Balioak preziorik ez duenean”, *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 35, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 6-10.

Carrascal Gallardo, Tomás (2012): *El patio ‘off’ mi casa. Relación del Diseño y la Estética con lo Ibérico/Popular Contemporáneo*, Editorial Círculo Rojo, Almería.

22 Larrea, A. eta Gamarra, G. (2007): *Bilbao y su doble...*, op. cit., 216.

23 Zantigu Orbea, Ander (2018): “Afekzioen makroekitaldiak. Ekonomia forma berriak hirigintza-planen barrena”, *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 35, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 26.

24 Irausegi Ibarra, Beñat (2018): “Ekonomiaz eta lurraldeaz birjabetzeko tokiko aukerak landu”, *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 35, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 19-20.

- Cremisi, Teresa (2015): *La Trionphante*. Gallimard, Paris.
- Delgado, Manuel (2007): *La ciudad mentirosa. Fraude y miseria del 'modelo Barcelona'*. Catarata, Madril.
- Easterling, Keller (2016): *Extrastatecraft – the power of infrastructure space*, Verso, Londres.
- Editoriala (2017): *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 30, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Editoriala (2016): *Aldiri. Arkitektura eta abar...*, 27, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Habermas, Jürgen (2006): *Historia y crítica de la opinión pública. La transformación estructural de la vida pública*. Gustavo Gili, Bartzelona.
- Irausegi Ibarra, Beñat (2018): “Ekonomiaz eta lurraldeaz birjabetzeko tokiko aukerak landu”, *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 35, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 19-22.
- Larramendi Elexgarai, Itsaso (2018): “Guda hotzak oraindik eragina du gugan, badago iruditeria kolektibo bat mugat tinko mantentzen dituen. Aitane Goñi Landarekin solasean”, *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 35, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 3-5.
- Larrea, Andeka eta Gamarra, Garikoitz (2007): *Bilbao y su doble. ¿Regeneración urbana o destrucción de la vida pública?*. Gatazka Gunea ('Gatazkaren Harian', 1 liburukia), Bilbo.
- Pérez Goiri, Iker (2014): “Impresiones de una ciudad”, *Ausart. Journal for Research in Art*, 2 (1), Euskal Herriko Unibertsitatea (UV/EHU), Bilbo, 155-163.
- Rabotnikof, Nora (2011): “Los sentidos de lo público”, in M. Merino (comp.), *Ética pública*. Siglo XXI, Mexiko.
- Ramírez Blanco, Julia (2014): *Utopías artísticas de revuelta. Claremont Road, Reclaim the Streets, la Ciudad de Sol*. Cuadernos de Arte Cátedra, Madril.
- Sousa González, Eduardo (2013): “El espacio público. Una visión interpretativa desde la posición de Jürgen Habermas y Hannah Arendt”, in D. Sánchez González eta C. Egea Jiménez (koord.), *La ciudad, un espacio para la vida. Miradas y enfoques desde la experiencia espacial*. Granadako Unibertsitatea, Granada, 43-58.
- Uriarte Idiazabal, Mainer (2017): *Paisaia-ikuspegia eta haren lau dimentsioak. Metodo interpretatzaile konstruktibista baten proposamena, Bilboaldeko hiri-bazterreko paisaia menditsuen kasuan aplikatua*. Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) eta Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Bilbo.
- Vivas Ziarrusta, Isusko (2006): “Prolongación racionalista en la arquitectura vasca de posguerra. Desde el orden simbólico-monumental hacia la búsqueda de la fun-

cionalidad”, *Ondare, 1939-1975 bitarteko Euskal Artearen Berrikusketa/Revisión del Arte Vasco entre 1939-1975*, 25, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 263-280.

Vivas Ziarrusta, Isusko (2004): “Racionalismo local y reminiscencias posteriores. Arquitectura funcional entre el simbolismo y la monumentalidad”, *Ondare, 1875-1939 bitarteko Euskal Artearen Berrikusketa/Revisión del Arte Vasco entre 1875-1939*, 23, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 355-370.

Zantigu Orbea, Ander (2018): “Afekzioen makroekitaldiak. Ekonomia forma berriak hirigintza-planen barrena”, *Aldiri. Arkitektura eta abar*, 35, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 23-26.